

# Txoriak

**Txoriak egitasmoko kabi-kutzak non eta nola kokatu ikasteko informazio praktikoa aurkituko duzue dokumentu honetan, bai eta gerturatuko diren txorientzat erakargarriago egiteko kabi-kutxen inguruak hobetzeko aholkuak ere. Gogoratu, kabi-kutzak ikusiak edo behatuak izateko egokiak diren tokietan kokatu behar direla, beraz, behaketa hobetzeko gomendio batzuk ere emango dizkizuegu.**

## 1.- KABI-KUTXA KOKATZEA

Bizitzeko toki lasai bat Ikastetxe inguruak zenbait unetan leku isil eta baketsuak ez diren arren, gomendagarria da zuen kabi-kutxarentzat toki lasai bat aukeratzea, molestatu dezaketen jende edo ibilgailu asko ez dabilzan toki bat.

### Orientazioa

Kabi-kutxa jatzerako garaian, kontuan hartu behar dugu haizeteetatik eta euritik babestuta egon behar dela sarrera. Eguzkiari dagokionez, egokiena da kabi-kutxa itzalean egotea, baina hobe gune bereziki hezeak saihestea.

### Kokatzea

Zuhaitz baten enborrera edo eraikin bateko hormara soka batez, alanbreaz edo bridekin lotu dezakezue kabi-kutxa, edo bestela kako formaz amaitutako hagaxka batekin zuhaitz baten adarrean eskegi.

Zuhaitz baten enborrera itsatsita badaude haizeteen aurrean egonkorragoak izateko abantaila dute, baina harrapakarien aurrean babes gutxiago dute. Hagaxka batekin adar batean eskegita badaude, babestuago egongo dira harrapakarien aurrean, baina ez dira hain

# Txoriak

egonkorrak, eta hori eragozpena izan daiteke gune haizetsuetan. Edozein kasutan, kontu handiz ibili behar zarete kabi-kutxak kokatzean zuhaitzak ez kaltetzeko, beren adarrak eta enborra ez zulatzeko edo itotzeko.

Eskegitzeko garaian teilatuaren inklinazioa errespetatu behar da euria ginez gero ura kabi-kutxara sar ez dadin.

## 2. BEHATOKIA

Kabi-kutxa eta bere inguruak hegaztiak molestatu gabe aztertzeko, leku lasai batean eta kabi-kutxaren eta bere inguruaren ikuspegi ona bermatuko duten puntu bat aukeratu behar duzue, behatoki gisa. Diskrezioa garrantzitsua da, helburua da hegaztiak behatzea beraiek zuek ikusi gabe.

Gainera, ondorengo materiala beti eskura izatea gomendatzen dizuegu: hegazti arruntenak bereizteko poster-gida (07 bereizketarako poster-gidarako lotzura), datuak jasotzeko jarraipen fitxa, bestelako dokumentazio gehigarri erabilgarria.

## 3. INGURU ATSEGINA

Kabi-kutxa hegaztiak habia egin eta babes har dezaketen toki batean kokatzeaz gain, beraien presentzia erraztuko duten hobekuntzak egin ditzakezue inguruan. Zenbait ideia:

Elikagai gehiago eskaintzeko janlekuak jarri, batik bat neguko hile gogorrenetan. Gomendagarria da janlekuaren eta kabi-kutxaren artean gutxienez 100 metroko distantzia egotea. Janlekua zuek egin dezakezue material berrerabiliarekin.

# Txoriak

Edateko eta garbitzeko ura garai beroenetan. Erabilerarik ez duen edozein ontzi erabil dezakezue edontzi gisa.

Aukera baduzue, heskai batzuk landa ditzakezue fruituekin, landare usaintsuak edo meliferoak, intsektuak erakar ditzaten, eta gure inguruko hegaztiei elikagaiak eta ezkutatzeko tokiak eskain diezaieten.